



BIZITEGI ERAIKINA
C MAILA**KALE BERRIA 17**

Egilea eta data: Antonio Zaldia, 1935

Deskribapena

Izkinako eraikina. Profil hau du: behe oina, bastardea, bost goi oin eta atzeraemandako seigarren oina. Maila bakoitzak hiru etxebizitza ditu, oinplanoan modu nolabait irregularrean banatzen direnak azaleren banaketan. Trantsizio estiloko obra da, mende hasieraren eta arkitektura moderno berriaren arteko bilakaeraren artean. Eraikuntza apala da, pintatutako emokadurekin eta erliebe moldekatuekin amaitutakoa. Fatxadaren konposizio klasizista du bereizgarri, Zabaldurako bizitegi ereduen irizpide bereberri jarraituz; hala nola: gorputz nagusiaren behealdean isolatzeko balkoi jarraitua erabiltzea, konposizioaren muturretan begiratokiak antolatzea, izkinako biribilgunea gogoraraztea (goiko erremateekin) edota ordena bertikalari erreferentzia egitea (solairu bakoitzean egitura desberdinez), etab. Era berean, gai modernoagoak jasotzen ditu; hala nola: angeluaren goialdeko pareta biluziaren funtsa edota izkinako begiratokiko leihate jarraitua.

Babes erregimena

- 1.- Babes erregimen orokorra:
 - Plan Berezi honen C babes mailan sartzearekin loturikoa.
 - Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira. Hori guztia, gaur egungo egoera irizpide horiekin bat ez badator, eta babestu beharreko arkitekturako proiektuarekin bat etortzeko arrazoiengatik mantentzea justifikatzen ez bada.
- 2.- Berriazko babes erregimena:
 - A.- Babesetik kanpo utzitako fatxadaren elementuak edo zatiak: ez.
 - B.- Fatxadaren elementu edo zati iraunkorrak: ez.
 - C.- Esku hartzeko murrizketa partikularrak: ez.
 - D.- Nahitaezko lehengoratzak:
 - * Behe oinean zati bateko estaldurak ezabatzea.
 - * Hala badagokio, aurreko aurreikuspenak betetzeari lotutako gainerakoak, erregimen orokor hori arautzen dutenak barne harturik.